# ZOOM-ekin

aurkezpenak grabatzeko gida.

Koronabirusak sortutako etxean egoteko derrigortasuna eta ikasleak aurkeztu beharreko aurkezpenak era birtualean egin beharra ikusita, jarduera hori errazteko asmoz ZOOM bideokonferentzia aplikazioarekin egin ahal izateko gida hau prestatu da, saioak grabatzeko aukera ematen baitu.

ZOOM aplikaziora esteka: [https://zoom.us/](https://zoom.us/)

Beste norbaitek sortutako bideo konferentzia batean parte hartzeko ZOOM kontua izatea beharrezkoa ez den arren, egin behar dugun jarduerarentzako kontua izatea komenigarria da. Dena dela, Google edo Facebook kontuekin ere sar daiteke ZOOM-era.




ZOOM-en web orrian sartutakoan “**ser anfitrión de una reunión con video encendido**” aukeratu.



**ZOOM MEETINGS** exekutatzera doala ipintzen duen mezu bat azalduko da, onartu egingo dugu.




Segundu gutxira aplikazioa abiaraziko da. Azaltzen den mezuan "**audio por computadora**" aukeratu.




Hasieran, bideokonferentziaren kontrolak behe aldean azalduko dira. Bertan kamera eta mikrofonoaren irudi eta soinua konfiguratu ditzakegu, partaideak gehitu, pantaila partekatu, txateatu, grabatu eta partaideen erreakzioak ikusi.




Egin behar dugun jarduerarentzako grabaketa eta pantaila partekatze aukerak erabiliko ditugu.

Pantaila partekatzea aukeratzean, irudian azaltzen den antzerako pantaila bat agertuko da. Bertan, partekatu nahi dugun pantaila edo leihoa aukeratu ahal izango dugu. “**Pantalla**” aukeratu.







Orain pantaila marko berde batekin inguraturik azalduko da. Aurkezpenerako erabiliko dugun powerpoint, pdf edo dokumentua ireki eta aurkezpen gisa ipini pantaila osoan. Powerpoint F5; PDF Ctrl+L.




Dokumentua aurkezpen moduan ipinitakoan, kurtsorea guenera eraman erdialdean bideokonferentzia identifikatzailearekin azaltzen den lauki berdera. Hasieran barrenean azaltzen zen menua agertuko da, **“Más”** aukeratu eta bertan azaltzen den azpi menuan **“Grabar”** sakatu.




Saioa grabatzen ari garen bitartean lauki berdean puntu gorri bat azalduko da




Grabatu beharreko aurkezpen jarduera egin.




Amaitzean, gueneko menura bueltatu eta lehen **"Grabar"** azaltzen zen tokian orain **"Detener la grabación"** azaltzen da. Bertan sakatzean grabaketa gelditzen da.




Grabaketa ordenagailuan gorde ahal izateko bideokonferentzia saioa amaitu egin behar da. Saioa amaitzean ZOOM grabaketa prozesatzen hari den bitartean mezu bat bistaratzen du.




Prozesatzea amaitzean leiho bat irekiko da grabaketa non gorde nahi dugun galdetuaz, aukeratu eta bertan hiru artxibo gordeko dira. Guk nahi duguna .mp4 luzapena duena da. .




